

Haurreskolak Partzuergoan oraindik ez dugu lan hitzarmen berririk .

Dakizuenez, ikasturte honetan lan hitzarmen berriaren negoziazioan aritu gara.

2009tik iraungita dagoen hitzarmen honi egin dizkiogun [ekarpenak](#) asko eta oso mamitsuak izan dira, hilabete hauetan zehar zuekin elkarbanatutako STEILASBERRI desberdinetan, dokumentuetan, afiliatuen bileretan eta bisitetan partekatu ditugunak.

Orain, negoziazioaren amaiera iristen ari den honetan, lan hitzarmen berria adosteko administrazioak behar beste eduki ez dituela jarri esan behar dugu. Hala ere, guk oraindik langileen lan baldintzetan hobekuntzak lortzeko itxaropena dugu.

STEILAS sindikatuan argi eta garbi daukagu zeintzuk izan diren negoziazio horretan gure ildo garrantzitsuenak, baina gai horien inguruan ez da inongo aurrerapausurik egon:

- Administrazioak aurkeztutako ratio berrien proposamena ez dute bertan behera utzi.
- Hezitzaileen urteko eta eguneko jardunaren murrizketan ez dira urratsak eman, eskola publikoarekin parekatzeko bidean. Kudeaketa langileen jardun murrizketak ere ez dira onartuak izan.
- Langileen erosahaltenaren galera berreskuratzeko ez ditu aurrerapausuak eman.
- Eredu gerentziala mantentzen da Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzena egin beharrean.
- Desplazamenduak ekiditeko neurriak ez dituzte txertatu.
- Formakuntzaren proposamen berriak langileen lan zama handitzea dakar.
- Hezitzaile bakarreko haurreskoletan koordinaziorako eskubidea kentzen da.

Administrazioaren aldetik jasotako proposamenak oso murriztaileak izan dira, langileon lan zama handitzea dakartzatenak eta guk inola ere babestuko ez ditugunak. Horregatik guztiagatik, ezin dugu lan hitzarmen berriaren azken proposamena babestu eta sinatu momentu honetan idatzita dagoen terminoetan mantentzen bada. Erabaki horren inguruko hausnarketa sakonagoa zuekin laister partekatuko dugu.

Azpimarratu nahi dugu, Administrazioak negoziazio honetan ez dituela behin eta berriro adostutako epeak errespetatu. Jarrera hau azken hilabete honetan areagotu egin da. Horren erakuslea da, esandako data pasa eta astebate beranduago, ez dugula oraindik jaso bidalitako azken zirriborroari egindako ekarpenen erantzuna.

Honako hau izan zen STEILAS sindikatuaren atzoko eskaera, seriotasunez negoziazioarekin jarraitzea eta mahai negoziatzaile bat deitzea.

Bestalde, **ordezkapen telematiko**en inguruko ekarpenak bidali ostean, administrazioak bidali behar zigun zirriborroaren zain jarraitzen dugu. Beste behin ere, agerian geratzen da administrazio honen borondate eta konpromezu eza.

Amaitzeko, hurrengo egunetan lan hitzarmenaren lanketan administrazioak egindako proposamena eta STEILAS sindikatuaren eskaeren irakurketa sakona zuekin partekatuko dugu.

Edukizko lan hitzarmen berri baten alde borrokatzen eta lan egiten jarraituko dugu!

